

Mingotsak dira baina...

I

Bertso berriok hel bekizkizu
zirrikitutik sartuta
baina ez dut nahi irakurtzerik
isilik ta makurtuta,
sellorik gabe iritsi dira,
nola zerutik maluta,
txoriak hegan bezala doaz
hitzak ere kantatuta
beren bidea aurkitzen dute
bi hegoak zabaldua.



DANI BLANCO

IV

Hezur batetik txintxilik dago
hegoak nola erabil,
ukabila du amorru edo
amorrua du urkabil,
ur bila joan nahi luke baina
egunak dira urtarrik;
tximelak gauez dabiltza eta
gaua tximeletan dabil,
bide bakarra uzten diote,
gaua erantzi ala hil.

II

Baina bidea luze denean
hegoak nekatzen dira
eta txoriak adar gainetik
begiratzen du mendira,
nola kantatu pentsatu arte
luzatzen da bere mira.
Lore gaineko tximeleta bat
gure herria hori da
pentsakor dago bere hegoen
koloreari begira.

V

Egunsentitan dena da urdin,
hegoen indar adore,
ilunabarrez dena da nabar,
gari giro, mira more...
Bakoitzak bere begi ninien
pintzeltxoari amore;
tximeleta bat izango gara
baina gara ehun kolore
ta ez dakigu nola bihurtu
tximeletapeko lore.


III

“Ba ote daukat arnas berderik,
ba al dut marrubi hautsik?
Ba ote daukat irudimenik,
ba ote daukat iraultzik?”.
Norbaitek baietz erantzun dio,
ez dagoela bilutsik:
“Zure hegoen gorritasuna
gerezi berritan gutxik!”
... baina mamiak zer kolore du
gelditzean hezur hutsik?

VI

Barka zaidazu nire bertsoa
landu badut ezti hotzez,
zure atea kolpatu badu
harri batek ezkil hotsez.
Zure gogoa gelditu bada
nire bertso berri gosez
arnas berri bat bilatuko dut
ta ahal bada hain mingots ez,
bien bitarte animo eta
besarkada bat bihotzez.

DOINUA: “Mutil koxkor bat”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.